

**EUSKAL HERRIKO JESULAGUNEN PESKIZAN
ESTATISTIKAK ZERTAZ ARI ZAIZKIGUN**

Euskal Herriko jesulagunen eta nonahiko jesulagun euskal herritarren historia, modu bereizi, bateratu eta osoan egiteko dago, nahiz eta Lagundiko historia orokorragoetan Euskal Herriak eta jesulagun euskal herritarrek beren leku ezin baztertua izan duten.

Lagundian nortasun handiko euskal pertsonaiak egon dira, eta hainbat Probintzia erlijioso Euskal Herriko Lagundiarekin zerikusia izan dutenak (Gaztelakoa bereziki, eta Loiolakoa berrikitan). Era berean, han-hemen Etxe eta Ikastetxe handi eta txikiak. Gogora bitez Ignazio Loiolakoa (†1556), Frantzisko Jaso misiolaria (†1552), Martin Olabe teologoa (†1556), Antonio Araotz Lagundiko gobernu-gizona (†1573) eta Pedro Arrupe Prepositu Jenerala (†1991), eta hemengo Etxetan Loiola, Xabier edo Deustua.

Aita Pinedok eman zigun apunte labur bat jesulagunen Euskal Herrikoaz lerro nagusiak azalduz (Arantzazu, 2002), eta Malaxetxebarriak lehenago, zabal eta aberats, Lagundiak hezkuntzan egindako ekarpenen historia eskaini zigunean (1926). Baina Lagundiak Etxez Etxe eta jesulagunek banan-banan izandako presentziaz jakin beharko litzatekeena ez dugu oraindik eskueran.

Lagundia eta Euskal Herria

Lagundiaren sortzean bi euskaldun izan ziren buru-buru, hamar laguneko lehen taldean (1534): Eneko/Iñigo Loiolakoa eta Frantzisko Xabierkoa. Urte dezente geroago Oñatin izan zuen Lagundi gazteak Euskal Herriko lehenengo Etxea (1551), Frantzisko Borjakoa bertan zela. 1535az geroztik, San Ignazio ez zen Eruskal Herrira itzuli eta Erroman hil zen (1556), baina hemengo senitarte eta pertsonaia ezagunekin harremanak loturik izan zituen.

Orduan eta gero Jesusen Lagundiak garapen handia ezagutu zuen, Eliza Katolikoan Aro Garaikideko Institutu Erlijioso handiena izateraino: San Ignazio hiltzean milaren bat jesulagun zeuden, eta Elizak Lagundia onartu eta hirurogei urte geroago (1600), 8.500dik gora; Lagundia desegin baino urte gutxi lehenago ia 22.600 (1749). Lagundiaren historia osoko unerik gorena 1965eko urteari dagokio: 36.038 izatera iritsi ziren jesulagunak. Azkenik, 2008ko berriemate ofizialak zioenez, 18.815 ziren mundu osoko jesulagunak.

Gaur egun (2008) Lagundiaren etorkizuna Asia Hegoaldean (Indian bereziki) eta Afrika-Madagaskar-en ikusten da, Kontinente horietako bi Asistentziek (Probintzia-taldeak, alegia) 5.416 jesulagun baitituzte, batez besteko adina 47 urtekoa dutela, Europa eta AEBetako jesulagunen batez besteko hori 65etik gorakoa den bitartean. Horrez gain, bi Asistentzia haie-tan 378 nobizio zituzten, esandako urtean, Europako lau Asistentzietan 160 zituzten bitartean.

Lagundiak historia aldartetsua ezagutu du, 1540an sortu zenetik, eta ibilera horretan Antzinako Lagundia (1540-1773) eta Lagundi Berria bereizi ohi dira, bien artean desagertpen-aldi bat dagoela (1773-1814), nahiz eta Errusian eta Prusian Lagundiak beti bizirik iraun zuen. Gure artean, esan bezala, Lagundia 1551tik aurrera egon zen presente, eta Antzinako Lagundian hamaika Etxe eta Ikastetxe (Kolegio) izan zituen Lagundiak

Euskal Herrian. Lehen lantxo honetan, Antzinakoari helduko diot batez ere (XVI-XVIII. mendeak).

Jesulagunek, kostata baina lortu zuten euskal hiru Hiriburutan Ikastetxerik irekitzea, Iruñean lehenengo, eta Bilbo eta Donostian gero. Kostata diot, horretara iristeko, kontrakorik franko izan baitzuten, honelako fundazioetan sarritan gertatu ohi zenaren antzera. Gasteizen denbora laburreko historia izan zuten orduan (1751-1767), eta Baionan, eginahal guztien ondoren, ezin izan zuten Etxerik ireki.

Antzinako Lagundiko 11 euskal Etxeak, 1554az geroztik, beti Gaztelako Probintzia erlijiosoaren barrutian egon ziren, eta gero Lagundi Berrikoak, oster, barruti ezberdinetan: Espainian (1815), Gaztelan (1863), Gaztelako bietan (1948) eta Loiolakoan (1962). Horren ondorioz, jesulagun euskal herritarrek, sorlekuz halakoak, Euskal Herrian nahiz erbestean bizi zitezkeen beren Probintzia erlijiosotik irten gabe, eta alderantziz: Probintzia erlijiosoko hainbat jesulagun kanpotarrek gurean izan zitzaketen bizilekua, agintea eta lana.

Hemengoaz osorik jabetzeko ere, premiazkoa gertatzen zaio historialariari Probintzietako barruti zabalago horien antolamendua, egitura eta harremanak ere ezagutzea. Jesulagun euskal herritarren presentzia eta indar erlatiboa ez da beti berdina izan aipatutako barruti probintzial horietan. Badirudi (eta oraingoz behin-behineko hipotesia da hau), XVI-XVII. mendeetan gutxiengo ahula izan zela Gaztelako Probintzian jesulagun euskal herritarrena, nahiz eta apurka-apurka indartuz joan zen, XVIII. ean nabarmen indartsuago agertzeraino.

Hirurteko berriemateen arrastoan (1584...)

Aro Modernoko beste Ordena erlijiosotan apenas gertatzen den gisan, gaur egun posible da jesulagun euskal herritarretako bakoitzaren albisteak batera eskueran izatea: bakoitzaren izen-abizenak, sorterrria, jaioturtea, jesulagun-izaera (izaera ez-

berdinak baitaude Lagundiko barne-aniztasunean), osasuna, ikasketak eta unean uneko lanbideak. Aita Isidro Sans-ek pres-tatu duen datu-baseari esker eta arretaz begiratzuz gero, jesula-gunen Euskal Herriko lurralde-soziografia deigarri bat izan de-zakegu eskuetan.

Hasteko, lehendabizi, galdera estatistiko orokorra datorkigu bidera: zenbat jesulagun euskal herritar izan ditu Lagundiak, he-men jaiotakoak? Sans-en datu-baseak honela erantzuten digu:

LAGUNDIKO JESULAGUN EUSKAL HERRITARRAK

<i>Herrialdeetakoak</i>	<i>Antzinako Lagundia / %</i>		<i>Lagundi Berria / %</i>	
Jesulagun arabarrak	120	7,74	373	9,09
Jesulagun bizkaitarrak	316	20,36	1.090	26,67
Jesulagun gipuzkoarrak	422	27,19	1.590	38,76
Jesulagun nafarrak	694	44,71	1.049	25,57
Guztira	1.552	100,00	4.102	100,00

ITURRIA: Isidro Sans: Base de datos de jesuitas vasco-navarros. Archivo de Loiola (2011-09-23).

Zer esan hemen ageri zaizkigun datuei buruz? Lehenengo, nabari agertzen zaizkigun bi datu kontrajarri, Lagundi-aldi ba-natakoak: askoz gutxiago izan ziren Antzinako Lagundian eus-kal herritarrak (1.552), Lagundi Berrian baino (4.102).

Antzinako Lagundiari gagozkiola, garaian garaiko Ordena-ren politika begiratuta, Euskal Herria ez da ageri Lagundiko lu-rralde-lehentasunen artean, nahiz eta horrek ez duen esan nahi hemengo asmoetan interesik jarri ez zenik, baina nolanahi ere Lagundiaren lehen mendean bigarren mailako arreta izan zuen bakarrik (1551-1650).

Lagundi Berrira iristean (1815...), Lagundiaren beraren his-toriarekin batera Euskal Herriko funtsezko aldakuntzak hartu behar dira gogoan: azken mende eta erdian Euskal Herriak be-

re Industri Iraultzak egin ditu urte-modu eta Herrialde ezberdinetan, ekonomian bezalatsu gizartean (modernitatea bereganatu du), Elizaren izanberrikuntza-urteak dira (1875-1936), laster bokaziotan Euskal Herriko Eliza Katolikoak historiako bere lorraldirik emankorrena ezagutuko du (1940-1965), ondoren 1970etik honakoan beheraldirik etsikorrena bizitzeko.

Lagundia hemengo garapen ekonomikoaz baliatu ahal izan zen bere egiturak izanberritu ez ezik garatzeko ere: Lagundiko proiektu nagusietan, euskal burgesia handiak eta apalagoak segurtatuko dituzte oinarri ekonomikoak (gogoan har bitez Deustuko Unibertsitatea edo Urduñako Ikastetxea).

Bestalde, Lagundiak arretaz begiratu du jesulagun-gaien harrobia gertatuko den mundu landatarra, batzuetan Industri Iraultza ere izan duena, baina beranduago. Bilbok 370 jesulagun eman ditu Lagundi Berrian, baina, bien artean ere, bizilagun gutxiago zituzten Azpeitia eta Azkoitia ez ziren atzera geratu beren bokazio-ekarpenean, nahiz eta Bilbon baino gizarterako egitura lagunditar apalagoak zituzten Urola-alde horretan: bi herrien artean, 422 jesulagun zenbatu ahal izan dira (bakoitzak 211na).

Herrialdez, Antzinako Lagundian nafarrak izan ziren nagusi, alde handiarekin gainera: 694 lagun (garaiko ia % 45); askoz ere atzerago geratu ziren Gipuzkoa (%27) eta Bizkaia (%20), eta arabarrak ez dira hain gutxi (%8), Gasteizko Etxe bakarra bizialdi hain laburrekoa izanda.

Lagundi Berriak (1815...), bere berrehun urte eskasetan, Herrialdeen arteko bestelako aurpegia erakusten digu. Nafarroak galdu du bere lehenengotasuna, eta garai bateko ia %45a %25era erori da; orain, Gipuzkoa da nagusi euskal herritar jesulagunetan (ia %39), beharbada Deustua eta Bilboko pisu lagunditarra ezagututa esperoko ez genuen protagonismoa du, bada, Gipuzkoak; bizkaitarrak beren %27arekin nafarren zerbait gainetik geratzen zaizkigu, eta Araba da guztien jesulagun

-ekarpena beheragotik osatzen duena (%9). Oro har, esan daiteke –salbu Arabaren kasua– beste hiru Lurraldeen artean oreka hobe dagoela orain, Antzinako Lagundian baino.

Oro har, Nafarroaz izan ezik, beste hiru Herrialdeez esan daiteke jesulagunetan egindako ekarpena hirutan eta gehiagotan biderkatu dela Antzinako Lagunditik Berrira. Euskal herritarren indarberritze hori orokorrean Gaztelako Probintzia erlijiosoetan (Gaztela, Mendebal eta Eki Gaztela bietan) azkarki ageriko da, pertsonal-kopuruaren aldetik bakarrik ez, baita egitura nagusietan (Bilbo erdigune bortitza delarik, eta denbora batez Loiola bera) eta Probintziako aginte-guneetan ere. Horren adibide esanahitsua izan daiteke Oñako Ikastetxearen kasua: Burgos-en zegoen Oña (1880...), baina Euskal Herritik hurbil eta oso euskal herritar ikusten dugu bertako Lagunartea, guztien izen-abizen eta sorterriak begiratzuz gero.

Euskal Herriko Elizaren historia eta Institutu Erlijiosoen euskal herritartasuna ezagutuz joateko, bertan jaiotako seme-alaben sorterriak eta hemen izan dituzten bizialdiak ezagutzea funtsezkoa dela uste dut, eta horren ondoren etor daitezke erlijioso bakoitzaren bizilekuak, ofizio eta karguak, gaitasun eta prestakuntza, izandako lanbideak eta mota guztietako ekarpen pertsonalak. Hori dena jakiteko, eta modu pertsonalizatu batean bada areago, ez da zailtasunik faltako, orokorrean iturriek ere sobera lagunduko ez dutelako.

Hala ere, zorionez, Jesusen Lagundiaren kasuan iturri ezberdin aberatsak daude horrelako albisteak jaso ahal izateko.

Euskal Herriaz zer diote Hirurtekoek?

Jesusen Lagundiak tradizio handia izan du Etxe bakoitzeko albisteak zehazki jasotzen, eta ohitura hori ongi araututa eduki dute jesulagunek. Lehen bi hamarkadetako Kronika handiak ere, Ignazioren idazkari A. Polanco-renak alegia, ohartuki lan

egin zuen norabide berean, handik eta hemendik albisteak xeheki bilduz.

San Ignazioaren intuizio emankorren artean dago, Lagunek elkarren berri ematearena, munduko bazter guztietatik ere tokian tokiko albisteak elkarri eskaintzea, eta aldian-aldian Erromara bizileku guztietatik berriak biltzea. Irakurtzekoa da, zinez, Konstituzioetako “De lo que ayuda para la unión de ánimos” kapitulua nola iristen den horretarako arau zehatzak ematera.

Horrek guztiak Lagundiaren barne-nortasuna trinkotzeko balio behar zuen, eta halako albistegia Lagundiko agintariei gobernu-tresna aparta gerta zekiekeen. Horregatik, Aita Jeneralarari informazio hori prestatzea guztien zeregina zen, “De lo que ayudará al Prepósito General para bien hacer su oficio” izenburutzat daraman Konstituzioetako atalburuan irakur daiteke ondoko hau:

También ayudará para todo al General [...] una lista de todas las Casas y Colegios de la Compañía con sus rentas, y otra de las personas todas que están en cada Provincia, no solamente de los profesos y coadjutores formados y escolares aprobados, pero aún de los que están a probación, donde se digan sus nombres y cualidades. Y esta lista la hará renovar cada año si así pareciere conveniente. Y finalmente sea de todo informado, para que mejor pueda en todas cosas a gloria divina proveer.

Gaur egun Lagundiko Etxe bakoitzeko Lagunartearen berri jakiteaz gain posible da bizilagunen albiste pertsonala jasotzea, izendatuki jakin, alegia. Iturri horiek berek Etxe bakoitzeko lagunaren segida kronologikoa ere ematen digute, azken buruan nor bakoitzaren biografia soildu bat.

Iturri ezberdinetan dago ispatatuta Lagundiko edo Probintzia erlijiosoko historia ez ezik edozein herritako Lagunarteren joan-etorria, eta, xehekiago oraindik, jesulagun bakoitzaren bertako

lana eta bizitza. Eta Etxerik Etxe, bere bizialdian, jesulagun bakoitzak izan duen ibilera eta bete dituen zereginen “kronika” gisako bat. Lagundiko iturri argigarri hauen artean daude Etxeetako kronikak, aginduta daudenak eta ongi zainduak (*Historia Domus* eta *Litterae annuae* deritzenak), Probintziako urteroko Katalogo deituak edo Erromara bidaltzen ziren Hirurtekoak (*Catalogi triennales*).

Informazio-sare iraunkor horren bidez, historialariak agribaliabide aberatsa du, nola Antzinako Lagundiaren historiaren (1540-1767) hala Berrikoaz (1814...), lehenik hiri eta herrietako jesulagunen iragana aztertzeko eta, zehar bidez, tokiko historia erlijioso eta sozial orokorrera ere hurbiltzeko. Izan ere, erlijioso-etxe hauek ez baitira sortu eta hazten, bertako Elizatik kanpo eta herrian bertako interes sozialak mugitu eta mugiarazi gabe. Horrela, bada, Antzinako Lagundiaz A. Astrain nafarraren (1902-1925) edo Malaxetxebarriaren liburuak osatuz (1926), esaterako, zer jaso anitz dago oraindik aipatzen ditugun iturri horietan.

Esan bezala, Euskal Herriko Lagundia (Loiolako Probintziaren aurretik, 1962) erbestea ere besarkatzen zuten barruti zabalagoetan bizi izan da, eta lurralde haietako argitalpenetan ditugu hemengo albisteak ez ezik jesulagun sortzez euskal herriarrak, Euskal Herrian berton nahiz erbestean bizi izandakoak (Penintsulan, Misioetan, Erroma nahiz bestetako Ordenako zerbitzu orokorretan).

Katalogo eta abar horietako informazioa eratu den moduan egonik, Euskal Herriko hainbat notizia zehazki bereiz daiteke, eta gure lurraldekoaz jakitate orokor eta zehatza lortu. Hemen, albiste-iturri jakin batek eskaintzen dizkigun argibideen aurkezpena egin nahi dut..

Hirurteko albisteak: Catalogi Primi

Arakatuko dudan albiste-iturria (datu-basea) Aita Isidro Sans jesulagunaren lanari zor diot; Hirurteko Katalogoen gain landu du Sans-ek bere datu-basea. Beraz, Euskal Herriko Etxeetatik Erromara bidaltzen ziren berriemate ofizialetan du datu-baseak bere oinarria.

Hirurteko horiek, ordea, eduki ezberdinekoak izan zitezkeen: *Catalogus Primus* deiturikoetan oinarri-oinarrizko datu pertsonal xumeak jasotzen ziren, eta mota honetako katalogoak izango dira hemen arakatuko ditugun Hirurtekoak, hain zuzen Loiolan daude 1584az geroztikoak.

Catalogus Secundus zeritzanak jesulagunen isileko datu pertsonalak ematen zituen, eta *Catalogus Tertius* deituak, berriz, Etxeetako albiste ekonomikoak. Bi bilduma ezberdin hauek Erroman daude, eta ez ditugu hemen aztertuko. Horrela, albora uzten ditugu oraingoz orrialde hauetan, 1584a aurreko ageriko datu pertsonalak, isilpeko datu pertsonalak eta Etxeetako ekonomiarenak .

Hirurteko *Catalogus Primus* hark albiste jakinak biltzen ditu, sistematikoki bildu ere. Oraingoz, Antzinako Lagundiari dagokionez, Sans-ek datu-baseratu diguna 1584etik 1767a arte doana da, kasik 200 urteko ibilera, 44 urte jakinetakoak bilduta (1584, 1587...); hirurteko tarte horiek ez dira beti juxtu zaindu, baina, oro har, unean unekotasuna gorde zuten.

Aldizkotasun horrekin batera, ohartzekoa da zer izan den Hirurteko Katalogoek I. Sans-en datu-basean utzi digutena, eta jakitekoa da hain zuzen Katalogo horietan zergatik ziurtatu nahi izan diren dauden albisteak, azken buruan datu eskuragarrietatik berri-emaeleek hautatu eta jaso behar zituztenak. Aukera hori ez zen egiten nolanahi: Hirurteko katalogo horietan Erromatik ofizialki eskatutakoari erantzunez egiten zen berri-hautapena, eta, horrela, datu-basearen eduki-programa aldeztu aurretik erabakitakoari jarraikiz osatu ohi zen.

Katalogoetan lehenetsi ziren informazioek ondorio praktikoak ere bazituzten: Lagundiko “gorputza” (“el *cuerpo* de la Compañía” esan ohi zen) bere xehetasunean eta orokorrean deskribatu behar zuen Hirurteko emanaldi bakoitzak, eta gobernu-molde hautatu baterako balio. Errealitate gobernagaia deskribatzen zuten Hirurteko albistegiek. Eta, alderantziz, ofizialki antolatutako inkestak zirenez, informatzaileen (eta berauen agintarien) asmoak erakusten dizkigute. Iruñean, Bilbon edo Donostian, Lagundi osoan bezala indarrean zeuden ardura eta irizpideak ziren.

Datu-baseko zutabeek ondoko gelaxkak dituzte, eta inkesta osoaren esanahia eta giblean duen pentsamendua ezagutzen lagunduko digute. Hona, Hirurteko *Catalogi Primi* haietan jesulagun bakoitzari buruz aintzakotzak hartu ohi zena:

Apaiz/Ez-apaiza		Izena	Sorterria	Jaioturtea	
Osasuna	Sarrera-data	Ikasketak	Lanbideak	Maila	

Hemen espresuki ageri zaizkigun sailen pean, badaude ematen diren berrietatik bestelako azpi-sailak argitzeko balio duten datuak ere, Lagundiak herri nahiz kulturekin izan dituen lotura eta zerikusiak argitzen lagun diezaguketenak, eta Euskal Herrikoaz ere begiragarriak gertatuko zaizkigunak.

Adibidez, “Izena” eta “Sorterriarekin” *leinu* eta *herritasunarena* begira daiteke, “Ikasketarekin” aldi berean egiten den *heziketa* gogoan hartu behar da; “Mailari” buruz ari garelara, *profesadunekin* batera *nobizio* eta *eskolariek* leku nabaria dute Lagundi orokorrean bezalatsu Euskal Herriko Etxeetan ere; bestalde, “Lanbideetan” (*ministeri*) nahitaez tartekatzen zaigu *inkulturazioa*. Denak ere Lagundiaren hemengo euskal herritasuna ulertzen lagun dezaketen albiste-azpisailak izango ditugu horiek ere. Horrekin guztiarekin Lagundiak barnean duen konplexutasuna agertuko zaigu.

Erlijioso-lagunartea da Lagundia, Eliza Katolikoan erakundeztatua eta mundu-gizartetik bereizia, bere barne-lege eta egitura sozialak dituen. Batasuna du, baina barne-dibertsitate onartu eta arautua ere bai. Barruan bere aginte-piramide ongi eratuta dauka. Kide guztien izaera eta egoera garapen pertsonal baten prozesuan definituz segurtatu ohi dira. Kristau zeregin-eremu zabalak ditu Lagundiak, eta berez zernahi eginkizun pastoraletan ibil daiteke jesulaguna. Historiak, han-hemengo premiek eta eskueran izandako baliabideek gidatu izan dituzte Lagundikoen hautapen handiak, eta pertsonalak ere.

Jaiotzean (1540) Ordena erlijiosoa izan nahi zuen Lagundiak, baina molde berrikoa, inondik ere ez “monasteriotarra” eta nabariak zituen bere ezaugarri berriak (koruko errezorik gabea, penitentzia arauturik gabea; lagunarte bakoitzaren tokian tokikotasunari baino nonahiko premiei begira ibiliko zena, etab.). Lagundia ez da, bere barnean, deus eragabea eta oroberdina, baizik eta jesulagun-talde bakoitzak bere lekua du, Lagundiaren barneko aniztasunean klase-nortasun sozial jakina duelarik, eta klase berean ere Lagundiarekin duen lotura hertsia edo laxoagoa izan dezake.

Honek guztiak zerikusia du, noski, borondatezko hautapen pertsonalekin, baina baita norberaren gaitasun eta balioekin ere, ikasketa eta heziketarekin, eta Lagundiak bakoitzari eskainitako zereginekin eta norberaren esperientziarekin.

Orrialde hauetan datu zehatzak aztertzea baino sail eta azpi-sail bakoitzak Lagundiko asmo eta pentsamenduan zer esan nahi izan duen begiratzera mugatuko naiz, etor daitezkeen analisietarako Lagundiko testuinguru hori aurreratuz, baina “Lanbideen” kapitulu zabala beste baterako lagata. Hirurtekoek aurkezten dizkiguten datuei heldu aurretik, kome ni da, sailek eta azpi-sailek beren barruan duten esanahi so-

zial eta historikoaz argibideren bat ematea, betiere Lagundiko iturrietatik nola ikusi izan diren jakiteko.

Estreina, lehen eta azken zutabe-sailak (apaiz/ez-apaiz eta maila) elkarrekin begiratuko ditugu batak bestearekin duen zerikusi hertsiaztatik, eta argitara ekarriko ditugu hor erdi-ez-kutuan gera daitezkeen bi azpi-sailak: nobizioak, eskolariak.

Apaizak / Ez-apaizak, Mailak

Ordenako Konstituzioek erakusten diguten testuinguru anitzean, apaiz izatea ala ez, funtsezko datua izan da Lagundian, batez ere apaizen Ordena izan baita Jesusen Lagundia, apaiz-zereginetarako sortu eta garatua batik bat, apaiz-lana ez den guztia apaiz-eginkizun horietarako laguntza gisara ulertu duena, berez baliozkoa dela ere beti xede hartara zuzendua. Dena den, horrek ez du esan nahi pertsonalaren estatistikek apaizgoaren lehentasun hori beren ehunekoetan ongi ispilatu dutenik.

San Ignaziok eta lagunek Unibertsitatean burututako ikasketak apaizetarakoak ziren (Filofia eta Teologia), eta Lagundia sortu aurretik apaizturik zeuden, gainera. Ordenen historian egon da bestelakorik: gogora daiteke Frantzisko Asiskoa eta lehen orduko haren lagunak (Cattani izan ezik) herritar laikoak zirela, eta eskola gutxikoak, halakorik zutenean ere. San Ignazioren lagunak, ordea, Unibertsitateetan eskuratuta zuten goi-prestakuntza, “Maisuak” izateraino (San Ignazio berari “Maestro Ignacio” deituko zioten Lagunek).

Gainera, lehen hamar jesulagunak profesa osokoak izango dira, hau da, Lagunen heziketan frogantza guztiak pasa eta azken betirako zinitzak dituzten apaizak (laugarren bo-toa barne). Ez zen, ordea, handik aurrera Jesulagun guztiekin horrela gertatuko, eta San Ignaziok beste bi motatako Lagunak onartu zituen: apaiz “laguntzaile espiritualak”, azken profesa osora iritsi gabe eta apaiz izanik pastoraletan jar-

dungo zutenak, eta anaia “laguntzaile denboralak” (terminologia hau San Ignazioarena berarena da). Izan ere, Lagundiaren laneko premiek eta eskolatu gabeko jesulagun-gaien borondatezko eskaintzak, eskulanetarako Anaia laikoen hau bere naturaltasunean ekarri zuten. Hortaz, Konstituzioetan klase eta graduatan arretaz begiratu zituen Ignaziok.

Apaiz/Ez-apaiz, gradu ezberdin edo Lagundi barneko izaera bereizien honek gizaki eta gizartearekiko ikusera bat du bere azpian, eta baita karisma erlijiosoaren teologia jakina ere: bokazioa, esaten da, pertsonala da eta pertsonalizatua izan behar du (Jainkoak norbanako bakoitzari dei egiten dio) eta, bigarren, norbera bakoitzaren balio lortu eta lorgarrien gain eraiki behar da jesulaguna. San Ignaziok ez zuen sinesten jesulagunen erabateko berdintasun lausoan, banako bakoitzak gai zen neurrian eta moduan egin behar zuen ekarpen pertsonal berezian baizik. Eta jakina: jesulagun bakoitzaren nortasuna eta Lagundiaren helburuak oreka egokian uztartzeko asmoarekin.

Mota ezberdinetako jesulagunak honela banatzen ziren San Ignazio hil zenean: milaren bat jesulagun zeuden, eta horien artean 38 ziren lau zinitzeko profesadunak, 11 hiru zinitz egindakoak, 5 laguntzaile espiritualak eta 13 laguntzaile denboralak (Dalmases). Gero historiak bere bidea egin zuen: 1749an, zeuden 22.589 jesulagunetatik 11.293 ziren apaizak (%50); unerik gorenean (1965), 36.038 laguneko kopuru deigarrian 20.301 ziren apaizak (%56), eta gainerakoak Eskolarien (%29) eta Anaiei artean (%15) banatzen ziren. Begirtzekoa da, Euskal Herriko Etxeetan nola orekatu/desorekatu ziren mota ezberdin horietako presentziak, nolabait beren ehunekoetan Lagunarte bakoitzaren “kalitate ofiziala” ere erakutsi zezaketenak, Salamanca edo Valladolidedeko Ikastetxe handiek eta Bilboko txikiagoak ez baitzuten izaten Probintzian balio bera.

Arau orokor horren barruan, ordea, apaiz/ez-apaizen arteko bitasuna historiako garai ezberdinetan, molde ezberdinez bizi eta eratu izan da, eta ez beti bereizketa sozial mingarria ere izan gabe. Egoera horren aurrean, Antzinako Lagundiak ezagutu zuen gatazka-une bitxiren bat edo beste (Anaien janzkera kontuetan, e. b.), esanahi teologikoa ez, baizik soziala zuena.

Horrek baino luzaroago iraun du kezka sakonago honek: Lagundiko jatorrizko “apaiz-ministerioetan” eta Lagundiaren funtsezko karisman nola egokitu behar diren, teologiatik eta praktikan, Anaia laikoen (laguntzaile denboralen) bokazio eta zereginak. Vatikano II.aren ostean horri erantzun berritua emateko, nahitaezkoa izan da gogoeta landu bat, eta Lagundiko Kongregazio Jeneralek proposamen teoriko eta praktikoa aurkeztu ahal izan dituzte, eta horretara heltzeko, Loiolan bildutako Lagundi osoko Sinposioaren ekarpena baliozkotzat aitortua izan da (1994).

Euskal Herriko Etxe eta Ikastetxeetan beti ageri dira “laguntzaile denboralak”, ez asko baina bai eraginkorrak. Etxeko egunerokotasun arruntari eusteko; apenas falta den sekula halakorik Lagunarteetan, Anaiak erabat premiazkoak gertatzen baitziren apaizek zeregin pastoralak libreago bete zitzaizen.

Laguntzaile denboralen lanbidea arrunki etxeko lanena izan arren, norberaren prestakuntzak eta tokiko beharriaz nek ere zeresanik izan zezaketen Anaia laguntzaileen ohi-ko egitekoekin: ospitaleak ikustatu, dotrina eman, presoei lagundu, gizarteko harremanak erraztu, haurrei lehen eskola eman, eta abar; horiek denak Anaien ardurapean ere egon zitezkeen, eta Euskal Herrian sarritan ikusten da horrelakorik.

“Apaiz/Ez-apaizen” artean begiratu behar dira, gainera, nobizioak eta apaizetarako ikasten dabiltzan ikasleak, “esko-

lariak” (*escolares*), aldi berean ikasi eta lan eginez beren prestakuntza intelektual eta jesulagun-heziketa aurrera dararamatenak. Konstituzioek arreta bereziz begiratu zuten jesulagun ikasle hauen izaera.

Lagundiko kideen sailketari dagokion hau, azkeneko zutabe estatistikoarekin lotu behar da (“Maila” deitzen dugunarekin), Ikastetxeko pertsonalaren kalitate eta mailaz jabetzeko eta Kolegio bakoitzari Probintzia erlijiosoan ematen ziztzaion garrantzia ezagutzeko balioko digute azken zutabe horretako albiste pertsonalek.

Esan bezala, jesulagun-klase horietan, Lagundiak badu, gainera, apaiz izanik ere berorretan maila ezberdina dutenen bereizketa (“laguntzaile espiritual” deitzen kasua da, eta azkeneko profesadunena), Ordena erlijiosoetan modu hain juridiko eginean ezagutzen ez zena. Horrek zerikusi zuzena du Lagundiko frogantza- eta prestakuntza-kurrikuluarekin, zeren Lagundiko ibilera horretan jesulagun guztiak ez baitira azken mugaraino iristen. “Mailaren” zutabe horrek, bada, lehenengoarekin batera, nor bakoitzaren prestakuntza eta Lagundian duen integrazio-maila erakusten digu. Hor esaten zaigu erlijioso bakoitza zein gradutakoa den, profesia osoak egina ala nobizio hasiberria nahiz tartean aurkitzen dena, bidean gora doan ez-apaiz eskolaria.

Izena, Sorterria, Leinua

“Izenaren” eta “Sorterriaren” zutabe biei, “Leinuarena” gehitu diogu hemen, berehala esango ditugun arrazoiengatik.

Hasteko, izena eta sorterria bereziki esanahitsuak izan daitezke, Etxeetako pertsonalak Euskal Herriarekin nahiz Gaztelarekin jatorriz dituen loturak ezagutzeko, hortik daki-keguna sorterriaren datuarekin gurutzatzen baldin badugu. Areago, Etxe guztietakoak aldi berean nahiz bakoitza eta denak denboraren harian ezagut dezakegunarekin alderatzen

baditugu. Datu-baseak, ordu onean, hori guztia begiratzeko parada ematen digu, Jesusen Lagundiaren Euskal Herriko historia begiratzean.

Hirurteko albistegi hauetan denak du bere atzetik, aurretik eta inguruan bere munta. Lagundiko Konstituzioetan dago, Elkartera datozenen sorterri eta jatorriarekiko kezka eta galdera, “De algunas interrogaciones para más conocer la persona que quiere entrar en la Compañía” deritzan atalburuan: “Así que comenzando del nombre, demándese cómo se llama. De qué edad puede ser. Dónde sea natural”, dio galdera batek.

Erlijioso-gaiaren familiarekikoak ere interes berarekin galdetzen dira. Norberak dakarren historia pertsonalak etorkizuna baldintza dezakeenez, arretarik behinena jarri ohi zen gurasoen eta senideen iraganaz eta bizieraz galdetzean: “de qué condición sean y qué oficio o modo de vivir tienen, y si tienen necesidades temporales o comodidad, y de qué manera”; “cuántos hermanos y hermanas tiene, casados o por casar. Qué oficio o modo de vivir tienen”, eta abar. Eskolatuak ez direnei beren ogibide eta ofizioaz galdetzen zitzaien: “Si han aprendido algún oficio mecánico. Si sabe leer y escribir, y si sabe, pruébese cómo escribe y lee, si ya no se supiese”.

Historialariek aztertu izan dute Lagundiko lehen belaunaldiak zein klase sozialetatik zetozen, eta Herrialde ezberdinetan sortze sozial ezberdinetakoak ageri zaizkigu. Oro har, hirietako familietakoak ziren, prestakuntza literarioa maite zutenetakoak; aitor semeak presente zeuden, baina sendi apaletako franko ageri zaigu.

Zehar bidez bada ere, leinuaz argibideren bat ematen digun albisterik egon daiteke, gainera Hirurteko albistegietan. Guretzat hemen interes bikoitza eduki dezake horrek, euskal

gizarteko klase eta geruza sozialekin lotuta ageri den Elkar-tea delako Lagundia, hemen berton.

Euskal Herriak jesulagunetan ere izan du bere Diaspora, Gaztelako Probintziaren barruan, lehenengo, eta horretatik kanpo ere bai, gero (Misioak, etab.). Euskal Diaspora orokorrean egon da seme, alaba, biloba eta ondorengorik jesulagun izandakorik, baina sorleku hutsari baino familiaren leinuari garrantzia handiagoa ematen zionik, horretan garaiko pentsamoldeari jarraituz. Bestalde, ohikoa zen Gaztelako Probintzian jesulagun euskal herritarrek Euskal Herritik at bizitzea ere, hemendik erbestean.

Leinuaz ari garenez, ohartzekoa da XVI. mendean, “odol garbiaren” eta “kristau berrien” arazoak (hau da, judu kristatutu berrienak) indar betean zeudela Gaztelako Erreinuan. Konstituzioek galdetzeko agintzen dute “si viene de cristianos antiguos o modernos” (Konstituzioak 36, 2), baina Lagundian San Ignaziok ez zuen nahi gero halako bereizketarik: “en la Compañía no hay distinción de judío y griego”, dio berak. Behin eta berriro San Ignaziok erakutsitako kristau berriekiko irekitasun honek bideragarri egin zuen D. Laínez haren ondoko lehenengo Prepositu Jeneral hautatzea, nahiz eta kristau berrien leinukoa zen.

Espainian buruhausterik aski ekarri zuen Lagundian kristau berriak hartzearen horrek, eta Ignaziok Erroman jasan behar izan zuen auzi horretan gustuko izan ez zuen zenbait espainiarren hertsamenik, garaiko gizarte espainiarrean indarrean zeuden aurre-iritzien eta interesen ondorioz.

Zeuden salakuntza eta inguru gaiztotu hartatik libratzeko hartuko ziren erabaki berriak Astrainek iturrietatik jasota dauzka, eta arazo honetan Ignaziok izandako irizpide teoriakoa eta gobernu-jokabide praktikoaren albisteak ere bai. Lehenengo, Aquaviva Jeneralak debekatu zuen “kristau berriak” Lagundian hartzea (1592) eta V. Kongregazio Jeneralak

eman zuen horretarako 52. dekretua (1593) debeku hura berretsiz, itxura guztiz Ignaziok nahi zuenaren aurka.

Aurrerago ikusiko dugun inkulturazioarekin duen zerikusiatatik ongi etorriko da hemen Lagundiak, herriekin harremanetan jartzean, herri arrotzetako jesulagun-gaiak hartzeko jarrera eta zalantzak aintzakotzat hartzea. Espainia eta Europatik kanpo, Misioek herri eta kultura ez-kristauekin harremanetan jarri zuten berehala Konpainia, non eta Asia Ururu-ean eta Brasilen. Egokiera hori izan zen jatorriaren honetan bigarren une garrantzizkoa Lagundiaren historian. Ez zen politika bakar zurrunik egon, eta zabaltzen ari zen munduko herrietako “Misioetan”, bertako jatorrizko herritarrak Lagundian hartzeko irizpideak eta politika aldatuz joan ziren, toki batetik bestera eta garaien arabera.

Xabier Indian eta Japonian (1547...), Lagundirako ere bertako jendea irabazten ahalegindu zen (Bernardo de Satsuma, Lorenzo de Hirado, etab., XVI. mende azkenean 70 jesulagun japoniar izateraino); baina, aitzitik, urte bertsuetatik hasita Brasil-en indiarrekiko harrera-politika irekiak, eragozpen larriak izan zituen, Misioaren lehen ordu ederretan Juan Azpilkueta (†1557) edo Jose Antxieta (†1597) bezalako pertsonaiak egon arren.

Gure herrira gatozela, harrera-arazoa beste gisa eta maila batekoa zen. Lehenik, Euskal Herria Lagundiarentzat harrobi “naturala” zen, ez batere eztabaidagarria, kristauak eta katalikoak ginelako, hain zuzen, fundatzailearen herria eta nonahi bezain “garbiak”. Alde horretatik, ez zegoen inolako hesirik euskal herritarrak Lagundian sar zitezen. Hala ere, hizkuntza eta historia tarteko, begiratu beharra zegoen zeintzuk ziren hemengo premiak, jesulagun euskal herritarrak hartu eta hemengo gizartea zerbitzatzeko. Inkulturazioaren arazoa hemen ere egon zen, bada, eta horren ardura gogoan

hartuta ageri da Euskal Herriko Etxeetan, horretarako gobernu-irizpide aitorturik ezagutzen ez dudan arren.

Gaztelako Probintzia deituriko demografiaren euskotasuna neurtzeko, Hirurteko hauetan izen-abizenak eta bakoitzaren sorterriak lagunduko digute, betiere geografia eta kronologiaren azterketa-lerroak zaintzen ditugula.

Jaioturtea, Osasuna, Sarrera-data

Jesulagun-gaiak onartzean, berorien doktrina onaren, burubide zuzenaren eta azken xede kristauen (betiere *ad maiorem Dei gloriam*) premia ondo azpimarratuta ageri zaigu Lagundiko Konstituzioetan. Baina, gizakia gogo hutsa ez denez, gorputzari ere jaramon egin behar zaio, hori ere, bere adin egoki eta osasun onarekin, Lagundian guztien indarondarea izango baita. Lagunarte osasuntsua dohain bat da, lanerako baliabide ezin baztertua. Hirurteko kontu-emate hauetan bere tokia du horrek, eta horretan ere jesulagun bakoitzaren berri emango zaie Ordenako Nagusiei.

Hirurteko berriemate hauetan, jaioturtearen zutabea ez da albora uztekoa. Erlijiosoen adinak Lagundi osoa baldintzatzen du, norbanako bakoitza eta Elkarre osoa, Antzinako Lagundian bezalatsu Lagundi Berrian ere. Besteak beste, Lagundian denen oinarritzko mugikortasuna karismarekin lotuta ageri zaigu, eta berau norberaren eta guztien adin eta osasunarekin (jesulaguna bere jatorrian erromes ibiltaria da, eta edozein kasutan, nonahira joateko prest egon behar duena). Adin-osasunek hori dena baldintza zezaketen, eta oro har lagunen gaitasun pertsonalak ere bai. Estatistikek jaioturtea gogoan hartu izan dute, beraz, osasunarekin batera.

Gaur egunean ere, Lagundiko indarrak neurtzeko eta Elkarrearen nortasuna erakusteko, adinaren hori espresuki aipatzen da. Bilakaera demografiko baten barnean, Elkarreak duen batez besteko adinak pisu nabaria du Lagundiko inda-

rrak neurtzeko. Esate baterako, 2008ko egoerak, paradoxa handi hau jartzen digu aurrean: Hego Asiako Asistentzia (India eta Sri Lanka) da lagun-kopuruz Lagundi osoko handiena (3.999 lagun), eta bera da, gainera, Asistentziarik gazteena (47 urte eskaseko batez besteko adina); alderantziz, Mendebaldeko Europako Asistentziak 1.912 jesulagun ditu (Frantzia, Belgika, Erresuma Batua, Irlanda, Malta eta Kanada), eta bera da Asistentzietan adinez zaharrena (batez besteko adina ia 68 urtetan duela). Bistan da, bi Asistentzia horietan ezin duela Lagundiak gaitasun azkar bera izan, eta etorkizuna oso bestelakoa dutela batak eta besteak.

San Ignaziok eta bere Konstituzioek, gogoan hartu zituzten jesulagunen adina zein osasuna, eta ate joka zetorrenari zera galdetu behar zitzaion:

Si ha tenido o tiene enfermedades algunas encubiertas o descubiertas, y cuáles, especialmente demandándole si tiene alguna vejación de estómago o de cabeza, o de otro natural impedimento, o falta en alguna parte de su persona, y esto no solamente se demande, pero se mire en cuanto se puede.

Osasunaren hau Santu eta Ordena ezberdinen kezketako bat izan da Elizaren historian, batzuetan gaixoaren mugak erlijiosotara sartu aurretik begiratzeko; sarritan, gaixo dena maitasunez zaintzeko, edo Elkartean bizi behar duen erlijiosoaren egoera ona eta lan-gaitasuna begiratzeko.

Santutasun bideak ez du osasuna modu txarrean kaltetu behar. Bestalde, gaixotasun guztien aurretik, gorputza eta beronen osasuna gizakiaren ondare pertsonalaren balioa dira, bizi arteko ibileran zuhurtziaz etekin onik emateko balioko dutenak. Hain zuzen, ikuspuntu hau da Lagundian berezikiago begiratu ohi dena.

Kristauarentzat gorputza ahalbidea da, eta arriskua; horregatik, santutasunean ez da beti era berean maitatu, edo “gorrota-tu” gorputz hori, historiak erakusten digunez. San Ignaziok

ahaltasun baliagarri gisa ikusi eta sentitzen zuen gorputza; hau da, baliabide positibo boteretsua da bera. Gorputzaren balioespen hau San Ignazioren idazki eta gobernu-irizpideetan nabaria da oso.

Ordenara sartu aurrekoaz, Konstituzioen lehen partean ikus daitezke zenbait ohar Anaia Laguntzaileei dagozkienak: gizaseme egokiak izan behar dute, osasuntsuak, adin eta indarrez eskulanetarako abilak, eta apaizetarako direnek ere halatsu. Jesulagun bakoitzarekiko osasun-ardura nabaria da Lagundiko testuetan, eta ez da batere harritzekoa Hirurteko berriemate horietan osasunarena ere agertzea. Ikasketan dabiltzanek ere ez dute osasun horren kontra arriskatu behar.

Han-hemen bil daitezkeen oharretatik aparte, San Ignazioren Konstituzioek kapitulu osoa dute “De la conservación del cuerpo” deritzana; bertan irakur daiteke testu hau:

Como la solicitud demasiada en lo que toca al cuerpo es reprehensible, así el cuidado competente de mirar cómo se conserve para el divino servicio la salud y fuerzas corporales es loable, y deberían todos tenerle.

Osasunarekiko honek badu, gainera, San Ignaziok penitentzian egindako gehiegikerien eskarmentutik datorren oihartzunik: “La castigación del cuerpo no debe ser inmoderada, ni indiscreta en abstinencias”, dio zuhurtziaz. Jakina da, Santuen laudoriozko hagiografiek ez ezik zinezko biografiek ere halako hainbatengan penitentzien demasiak azpimarratu dituztela; kasu horietako bat zen loiolatarrarena, eta Lagundiko bizitza arautzean ez zuen ahaztu nahi izan esperientziak erakutsi ziona; ondorioz, Konstituzioetan geratu da, San Ignazioren hitzetan, penitentzia eta laztasunekin zaindu behar den neurriaren legea.

Hirurteko berriemateetan osasunaren hau sartzean, bi xede nagusi ikus daitezke: jesulagun bakoitzak, *ad maiorem Dei gloriam* ari denez, bere buruari etekinik onena ateratzen

ahalegindu behar du, horretarako behar duen sasoia zainduta. Lagundiko gobernuak noranahi eta edozertara bidaltzeko moduko lagunak segurtatu nahi ditu, baita osasunaren alde tik ere. Alde pertsonalari begiratzen zaio, beraz, eta Lagundiaren xede orokorre; jesulagunen prestakuntza intelektua lean bezalatsu, osasunak ere bere lekua du jesulagunaren heziketan eta gobernuan.

Azkenik, Lagundiko bakoitzaren “Sarrera-urtea” ematen zaigu estatistikaren laukian, ziurki bizitzan ondoko urratsei mugarria jarriko dien data delako. Lagundian iragandako norberaren urteek beren pisua dute eta heldutasun-neurri ren bat dakarte bakoitzarentzat; era berean, Ordenako eboluzioan (hori ere gogoan hartzekoa baita) edo gizartetik suertatuko diren gertakarietan norberaren presentzia krono logikoa ezagutzeko balio digu sarrera-urtearen honek: jesu lagun guztiek sarreratik heriotza arteko bizi-kronologia du te, bere baitan, Lagundian eta beroni dagokion aldian aldiko gizartean.

Heziketa, Ikasketak, Inkulturazioa

Lagundira sartzeko atarian eta nobizio-alদিари ekitean has ten da erlijioso-gaiari eskaintzen zaion lehenengo prestakun tza-garaia, jesulagunen kasuan luzatuz, luzaroan gauzatuz joango dena, Lagundiaren pentsamenduaren arabera, formal ki edo ez, etengabeko prestakuntza izan beharko duena.

Ikasketak baino funtsezkoagoa da gogo-heziketa, haien aurretik, haiekin batera nahiz ondoren burutuko dena. Go goa hornitu behar da, jakitez baino areago izaeraz, eta arau tuta dauden frogantzetan balioz eta bertutez jantzi, lehenik.

Gogo-Jardunak ziren horretarako gida eta lanabesa, Igna zioiok berak bere baitan eta gidatu zituenengan ikusitakoaren emaitza frogatua. 1522-1547. urteetan joan zen idazten testu hori, eta, bere baitan bizi izandako esperientzia aszetiko-

mistikoaz gain, inguratu zitzaizkion hainbat lagunengan emandako emaitzek erakutsi zioten metodoaren balioa (lehenengoz 1548an inprimatua).

Horregatik, jesulagun eginez joateko, aginduta zegoen, eta dago, frogantza ezberdinetan hilabeteko Gogo-Jardunak egitea, eta oinarrizko lehen esperientzien artean jarri zuen Ignaziok Gogo-Jardunetakoa, lehen frogantza egitean, beraz. Lirurutxo horrekin bateratsu Ignaziok bi izan zituen beti berarekin, oheburuan eduki ohi zituenak: *Testamentu Berria* eta T. Kempis-en *Kristoren antzbidea*.

Esan beharrik ez dago Lagundiak berak ere sortu zuela gogo-heziketarako literatura zabalagoa, San Ignazio berarengandik hasi eta zenbait idazle jesulagunek idatzia, inguruan garatzen ikusi ziren beste Eskola espiritualak ere begiraturik (beneditarrek, frantziskotarrak, karmeldarrak).

“Erromes” baten historia gisa kontatu zuen Ignaziok bere *Autobiografia*, ondoko jesulagunek haren espirituzko esperientzia ezagut zezaten, inguruan zituenek hala eskatu ziotelako eta bere idazkariez baliatuta (1554-1555). Horren aurretik eta beti zeuden, noski, Ordenako Konstituzioak (1541, 1547-1553), 1558ko I. Kongregazio Jeneralak indar osoan jarri zituenak.

Azkenik, Lagundiko idazle espiritual handiek Aro Modernoan espiritualitate eskolaturako testu irakurgarriak prestatu zituzten: Alfonso Rodríguez (†1617), Luis de la Puente (†1624), Luis de la Palma (†1641), Juan E. Nieremberg (†1658), etab. Rodríguez-ek espresuki adierazita utzi zuen hitzaurrean bere liburuaren xede nagusia lagunditarrak eskolatu eta San Ignaziok nahi zituen irakurgai suspergarrietako bat bederen haien eskuetan jartzea zela.

Heziketa espiritualaren ondoan, ikasketa eta irakaskuntza: horretaz ari da kultur gaitasunarekiko zutabe estatistikoa. Ikasteko gaitasunik eza eragozpena zen Lagundira apaizeta-

rako zetozenengan. Eskakizun hau bere pisuan aintzakotzat hartzeko, Konstituzioek galdera-mota hauek egiten dizkiote ate-joka datorrenari:

Si ha sido graduado en Artes liberales, o en Teología o en cánones u otra facultad. Si le parece que la memoria le acompañe para tomar y retener lo que estudia. Si le parece que el entendimiento le sirve para penetrar presto y bien lo que estudia. Si halla en sí inclinación natural a los estudios.

Si le parece que el estudio le hará daño a la salud corporal.

Aldez aurretik jakinda jesulagun-gai guztiak ez direla ikaskuntzan goiko azken bikaitasunetara helduko, bakoitza bere neurrira molda zedila eskatu zuen San Ignaziok, nahitaez goragoetarako igotzen ito gabe eta apaltasunari ere bere lekua emanda; baina, eskolari eta laguntzaile espiritualen kasuan, ikastean ongi ez dabilena Lagundiak kanpora utz dezake, eman dakizkiokeen egitekoek zer eskatzen duten gogoan hartuta.

Apai z jesulaguna, definizioz, gizon ikasia da, ongi eskolatua, ikas-lanetan gainerako Ordenetan baino areago joan behar zuena. Argi dago San Ignazioren eta Konstituzioen xede hori. Ignazio bera, heldua zela ere, luzaro ibili zen ikasten, horretarako batzuetan gehiegiko otoitz-beroaldiei neurria jarrita. Berrogei urteak ondotxo pasata bukatu zituen Parisen Unibertsitateko ikasketak.

Gerora luzaro bete beharko zituen zereginetarako prestatzea izan zen Bartzelona, Alcalá, Salamanca eta Pariseko ikas-garaia. Baina Ignazio ez zen izan Filosofia edo Teologian “Maisu”, nahiz eta horiek ere ikasi zituen (hurrenez hurren, Lizentziatura 1534an eta diploma 1536an), eta “Arteetan Maisu” izatera mugatu zen (1534). Dena den, Lagundiak ikasia izan behar zuen, jakituna, gizakien gogoak irabazi, argitu eta gidatuz arimen salbamen-helburuak lortzeko.

Lagundiak aitzina egin ahala, gero eta argiago agertu zen premia hori Ikastetxeak ireki eta ugarituz joan zirenean. Penintsula Iberiarrean elkarren jarraian etorri ziren horrelakoak: Valentzia, 1544; Bartzelona, 1545; Alcalá, 1546; Burgos, 1550, Oñati, 1551 eta abar. Lagundia ez zen izan bereziki irakaskuntzarako asmatua, baina berak bere baitan eta gizartetik iritsi zitzaizkion eskariei erantzutean, Ikastetxeen hori arduraz hartu zuen.

Horregatik, eta ez horregatik bakarrik, Konstituzioetako *Examen General* deritzanean atalburu bat eskainikoa zaio jesulagun-gaiek ekar dezaketen prestakuntzari: “De otro examen algo más particular que conviene a los letrados y coadjutores espirituales y escolares”. Hola dio hasieratik, berehala zertzelada handiagoz jarraituko den galdeketak:

Porque se pueda tomar mayor diligencia y conocimiento de los tales, cada uno sea interrogado dónde ha estudiado, en qué facultad. Qué autores, y doctrina. Cuánto tiempo. Cómo le parece haberse aprovechado, y especialmente cómo le sirve la lengua latina.

Prestakuntza horretarako San Ignaziok lan-egitarau osoa iradoki zuen jesulagunak beren jarduerarako gai egin zitezten: “De lo que los escolares de la Compañía han de estudiar” dio gaiaz ari den pasarteak, hizkuntzak, humanitateak, logika, filosofia natural eta morala, metafisika, teologia eskolastiko eta positiboa, Eskritura Santua aipatzen dira.

Alcalán edo Salamancan baino probetxu hobez bizi izandako *modus parisiensis* esan ohi zena maite zuen berezikia-go San Ignaziok. Hautapen horren emaitza eta Ikastetxeetako berehalako praxi instituzional-pedagogikoaren ondorio gertatu zen jesulagunen *Ratio Studiorm* sonatua (1599), eta berorren aplikazioen historia. Kolegioetakoaren gisara luze arautu zen Konstituzioetan Unibertsitateetan gorde behar zen egitarau eta antolamendua. Horri guztiari esker, Mende-

baldeko hezkuntzaren historiako kapitulu nagusietakoa da jesulagunen hau.

Hirurteko estatistikek jesulagun bakoitzak zuen ikas-presetakuntzaren berri jasotzen du, Lagundi osoko indarrak eta baliagarritasuna honetan ere norainokoa zen jakiteko. Teologia eta Filosofia izaten ziren jesulagun orok arrunki ikasten zituenak, Arteak ere ez ziren baztertzen, eta gainerakoan kasuan kasuko eremuak eta jakite-mailak lortzen ziren.

Bestalde, Euskal Herriaz ariko garenez, bukatzeko kome-ni da Aro Moderno hartan San Ignaziok eta Lagundiak he-rrien kultura eta hizkuntzez zer zioten gogoraraztea, inkultu-razio posiblearen arazoa tartean dela.

Lagundia, Aita Santuen esanetara, mundu osorako Elkar-tea izan nahi zuen Ordena zen, Europan, noski, baina baita aurreko ehun eta zenbait urtetan europarrek aurkitu zituz-ten mundu berrietan ere: hain zuzen, laugarren zinitza zuten jesulagunek zernaitan eta nonahi jarduteko gizonak izan behar zuten. Hortaz, Lagundiak edozein kultura eta hizkun-tzatan ibiltzeko prest egon behar zuen, eta premien arabera prestatu.

Gogo horrek, ordea, bazituen bere zailtasunak, lehenengo iritzi eta irizpide egokia izateko, eta ondoren politika prakti-koa gauzatzeko; ez zen falta izan jarrera kontrajarririk. Jesu-lagunen lehenengo bi belaunaldiek, Herrialde eta kultura ez-berdinen artean zebiltzanez, arazoaz jabetzeko aukera anitz izan zuten; San Ignaziok bere predikuan Gaztelan bezala lan egin zuen Frantzia edo Italian, eta bertatik bertara bizi izan zuen Ebanjelioa herrien hizkuntza-kulturetan eman beharra. Ezaguna da, bestalde, nola Calahorrako Gotzainak behin eta berriz San Ignaziori Diozesirako sermolari euskaldunak es-kuatu zizkion.

Kristau fedearen inkulturazioan, XVI. mendean mundu aurkitu berriak irekitzean, hizkuntzena izan zen erronkarik

agerikoenetakoa. Errenazimentuko humanismoak bere kulturgintzan latinaren eta Monarkien hizkuntzen arteko hautapena egin behar izan zuen, eta, aldi bertsuan, misiolariak Koroa europarren hizkuntzei ala herri aurkitu berrienei eman lehentasuna erabaki. Predikua nola egin ulergarri, dotrina kristaua zein kulturaren hizkeran eman; kolonizatzaile eta kolonizatzearen mundu kontrajarrien arteko gizarte kristauak zein kultur tresnekin gidatu, erronka handia zen hori, bataiatzearen kultur historia pertsonala begiramenez errespetatu nahi baldin bazen.

Loiolatik irtenda (1522...), bere bizitzan eta ikasketetan, hizkuntza ezberdinak ezagutu eta mintzatu zituen Ignaziok, lehendik erabilitako euskara eta gaztelaniaren ondoan, Manresa eta Bartzelonan katalana edo Lur Santuetan arabiera eta beste. Latina ikasteak lanik franko eskatu zion, Bartzelonan lehenengo eta Parisen gero (frantsesik jakin gabe eta 36 urte zituela); artean latina eta italiera ez zekizkielako, zailtasunak izan zituen Jerusalemenerako erromes-bidaian (1523); Erroman gaztelaniaz egin zituen lehen predikuak, lagunak italiera gaizto batez ari ziren bitartean (1538). Ondoko urteetan, garrantzizko zenbait testu sortzeko (Gogo-Jardunak, Autobiografia, Konstituzioak), Ignaziok gaztelania erabili zuen gehienbat, behar zenean italiera eta latina ere eskura zituela. Beti uste izan zuen, jesulagunen prestakuntza egokian latinak izan behar zuela lehen lekua.

Ignazioren parean, baina harengadik eta Europako kultura-hizkuntzetatik urrun, Frantzisko Xabierrekoaren esperientzia (1541-1552) miretsita ezagutu zuen Lagundiak, hura bizi-rik zela eta gero. Xabier-ek begi zabalik begiratu zituen Ekialdeko kultura ezezagun haiek, eta herri haietako hizkuntzetara hurbiltzen saiatu zen.

Bide bertsuetan barrena ibiliko ziren gero Txinan Ricci (†1610) eta Indian Nobili (†1656); Paraguay-ko guaranien ar-

teko *Reducciones*-etako topaketak ere bere erronka kulturala ekarri zuen, 1609tik aurrera: Montoya-k (†1651) hiztegi, gramatika eta katixima eman zituen guaranieraz. Kezka eta premia horiek behin baino gehiagotan Lagundiko agintarien babes eta sustapena izan zituzten (A. Valignano Ekialde Urruanean, †1606). Jesulagunentzat ere, erlijioen arteko topaketa haiek are desafio handiagoak izan ziren kolonizazioaren barruan gertatu zirelako.

Inkultrazio linguistikoak Misio kristauetan oro har eta Lagundikoetan berezikiago arrasto nabaria utzi du ebanjelizatzearen ekarpen eta hondamendien artean. Europako hizkuntz gutxiengoentzat, Amerikan edo Asian gertatutakoa Europan eta Euskal Herrian eremu berean jazotakoaren kontra-ispilua dela esango luke batek: adibidez, bi Kontinente haietako lehen katiximak gurean euskaraz izan ditugunak baino lehenagokoak izan ziren, eta hasieratik adorez heldu zitzaion Misio-herrietan inkultrazio-lanari, sarritan kolonialismoak misiolarien begiratua lainotu arren.

Historia hori gorabehera, ez dugu pentsatu behar inkultrazioaren arazoan, Antzinako Lagundian (Aro Modernoan, alegia) aldeztu aurretik Vatikanoko II.ak ekarri dituen uretatik edaten zenik. Inkultrazioarena Kontzilio-ondoko eguneratze eta arautze lana izan da batez ere Lagundian (1995).

Jakina da Euskal Herrian ibili ziren lehen jesulagunak beren predikua euskaraz egiten ahalegindu zirela, hain zuzen Calahorrako Luku gotzainak eskatuta ere bai. Hizkuntza propioa zuen gure lurraldeak, zer egiten zen, ordea, Lagundiko Kolegioetan? Guztiz herritarrak ziren haurrentzako lehen irakur-eskolen ondoren, ezaguna da Ikastetxe haietan zein hizkuntza hartzen ziren aintzakotzat, eta Lagundiak bere Ikastetxeetan ezarri zuen ikas-egitarau eta pedagogia, Euskal Herrikoetan ere indarrean egon zena.

1599ko *Ratio studiorum* deituak ongi araututa utzi zuen Ikastetxeetako hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerak, hasi beheko mailetatik (erretorika, humanitate eta gramatika) eta goikoetaraino (filosofia, teologia eta Eskritura Santua). Jada beheko mailatan latina izango da hizkuntza lehenetsia, eta guztiei, ikasi ahala, ezarriko zaiena.

Latinaren erabilpena hertsiki zainduko da, salbu ikasleek ez dakitenean; eskolako zereginei dagokienez, ez da sekula ama-hizkuntza erabiltzen utziko; zigortuak izango dira arau hau aintzakotzat hartzen ez dutenak; horregatik, latinez mintzatuko da beti maisua.

Latina indar betean zegoen Mendebaldeko hezkuntzan, jesulagunek beren ikastetxe-sarea sortu zuten hamarkadetan. Zergati historiko-kulturalak zeuden hori horrela izan zedin, Erdi Arotik zetozenak eta Errenazimentuko humanismoak ere indartuak; baina jesulagunen kontrarreformaren ikuspuntutik latinak ortodoxiaren balioa zuen, aitzitik Erreforma heterodoxoak latina ez ezik herri hizkuntzak ere eraman zituen, eskola eta dotrinara, prediku eta Teologiara. Horren aurrean, latinak batasuna eta segurtasuna zekartzen. Denborarekin jarrera hori aldatuz joan zen katolikoen artean ere, baina Kolegio lagunditarretan abiapuntua hori izan zen, 1599ko arauak finkatuta utzi zutenaren arabera.

Ama-hizkuntzak (*lingua patria*, *sermo patrius*) leku eta didaktika ongi mugatuak izango ditu klasikoetatik egin beharko diren itzulpenetan (gramatika eta humanitateak ikastean); baina “ama-hizkuntza” ia beti Koroen hizkuntza izango da (frantsesa, gaztelania), ez beste hiztungo mugatua-goena. Esan beharrik ez dago, Filosofia edo Teologiara heltzen zenak are gutxiago erabil zezakeela bere ama-hizkuntza, eta une hartatik aitzina latina nagusi zuela, nahiz eta grekoa, hebreera edo arameera ere hizkuntza lagungarriak zituen Eskritura Santuko ikasketak egiteko.

Hautapen kultural horien arrastoan joan ziren, noski, Euskal Herrian Antzinako Lagundiko Ikastetxeak, ez zegoen apenas bestelakorik itxaroterik, eta, hala ere, Penintsulako jesulagun guztiak erbesteratuak izateko bezperan (Portugal, 1759; Espainia, 1767), Larramendi eta larramenditarrei zor diegu Euskal Hegoaldeko euskal literaturaren lehen loraldia, baina katixima eta predikuari lotua, ez Ikastetxeetako irakas-programari.

Hemen aurkeztuko ez ditudan “Eginbideetan” (*ministerios* esaten zitzaien hauei) askoz herritarragoa gertatu zen inkulturazio linguistikoa (elizkizun, prediku, dotrina, laguntza sozial eta, oro har, pastorean), nahitaez garaiko egoera sozio-linguistikotik eliz eginbide horiek herritik hurbilago ibili behar zutelako.

Orrialde hauetan irakurritakoetan utzi nahi izan dut Jesusen Lagundiaren Euskal Herriko historia modu berritu batean egiten hasteko zenbait iradokizun, nik neuk Aita Isidro Sans-en lanari zor dizkiodanak. Egunen batean oin-oharrezaturik emateko aukera ere izango al dut.

Joseba Intxausti
2011-11-16